

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Martxoak 31  
446. zenb.



## Gerraostean dantzari

**IKUSPEGIA:** IKER BARANDIARAN • **KIROLAK:** ESKUBALOI TALDEA  
**EUREN IKUSPUNTUTIK:** JUANJO DE LA IGLESIA • **KULTURA:** LARRAITZ TROJAOLA

*Kalitateak, mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE

# MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

**VOLKSWAGEN LUPO**  
auto baten zozketa!!  
Bai, zure ikusmenak  
ondo dio:

**VOLKSWAGEN  
LUPO**  
zoragarri bat!!



5.000 PTAKO EROSKETA BAKOITZKO TXARTEL BAT



Eta ordaintzeko ordutan, abantaila ugari:  
• MULTIOPTICAS-en kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.  
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU  
MULTIOPTICAS-en  
"TRAVEL CLUB"  
PROGRAMAKO  
PUNTUAK

# VOLKSWAGEN LUPO BATEN ZOZKETA

# Esku bakar bateko hatzamarrekin

Aste Santuko oporrak atarian dauzkagu. Bereziki langileontzako labur xamarrek badira ere, askok oporretan joateko erabiliko dituzte, ziurrenik. Aurtengo negu gogorrek gorputzetan itsatsitako hotza kentzeko helburuarekin, askok hegoalderantz joko dute, eguzki izpipean barruak berotzeko. Beste batzuek txip-a aldatzeko gogo bakarrarekin, beste norabaiterantz joko dute, mendira adibidez.



Iker Barandiaran

bakoitzean auto kopuru zehatz bat bakarrik ibili ahal izango da. Jada ez gara ia kabitzen eta.

Frogatuta dago, bizi dugun auto erosketa eta erabileraren hazkunde geldiezinaren erruz, jarriko dituzten (utziz gero) errepide zein autobide berri guztiak bete egingo direla. Honi guztiari buruzko datu eta ikerketa garbiak daude,

baina eraikitzaile, autogile eta kontratei esker loditzen diren politikoez ez dute hau jakinarazi nahi, jakina.

Honek guztiak gizartearen hausnarketa handia beharko luke. Lanegunetan zaila bada, opor garaian zailagoa, ezta?

Tira, gutxienez, zerbitzu publikoaren eskaintza handitzea eta merketzea eska genezake. Baita, noski, dauden autoak elkarrekin hobeto erabiltzen ahalegintzea. Azken honekin lotuta, pixkat galtzen ari den ekimen-ohitura bat datorkit

burura; autostop egitearena, alegia. Orokorrean, gurasoek gaitzesten duten arren, nor ez da bere lehenengo jai edo kontzertuetara, "hatzamarra jarriz" joan? Askoren ustez, autostop egitea, gaztaroko gauza da, baita burua argi zein bizi izan eta inkonformismoa lantzea.

Hainbeste aldatzen ote gara, adinaren, urteen erruz? Ardura zehatz batzuk hartu eta konformistagoak bihurtzeko joera dugu, bai horixe, baina ez horrenbeste. Horren harian, "hatzamarra jartzearen" beherakada, erosotasun hitzak laburbil dezake. Hau da, bai, berau egiteko ohitura galdu dutenen aldetik; eta baita, noski, inork inor behartzen ez duen arren, autoarekin pasa eta lekua izanik, bat-batean gelditu eta norbait hartzea, birritan pentsatu behar den gauza delako, paso egiten dutelako.

Bada, zuek galtzen duzue, beste aukera bat baita, adinarekin zerikusitxikia duena. Nik, adibidez, jende ugari ezagutu dut horrela, eta eguraldi txarreko zein beste egun zehatzen bateaz izan ezik, ez naiz ezertxo ere damutzen. Eta zu? ■

## "Laster, Mexiko DF bezalako hiri erraldoietan bezala ibiliko gara"

Itteera masibo horiekin lotuta, errepideetan betiko auto pilaketa ikaragarriak egingo dira. Badakizue, dagoen auto kopurua hain ugaria izanik, gero eta errepide munstro gehiago sortu arren, gertuko etorkizun batean, Mexiko D.F. bezalako hiri erraldoi eta desproporzionatueta egiten den bezalaxe, egun

## "Ni alkate banaiz, bi urte barru Olandixoko tuneleko lanak hasita egongo dira"

Jose Mari Loiti

# 1.200

milioi pta inbertituko du udalak Mojatetik kiroldegan

Musakolako kiroldegia Mojatetik baserriraino (Eroskiren parean, erreka bestaldean) zabalduko da, kirol hornikuntza berriekin: belodromo irekia, errugbi zelaia, atletismo pistak, etab. Belar artifiziala izango duen futbol zelaia ere egingo da.

## BAZENEKIEN?

### Aste Santuko ohitura galduak

Badira urte gutxiren buruan Aste Santuarekin lotuta galdu diren hainbat ohitura. Hona hemen bat, Josemari Velez de Mendizabalek "Nire Haurtzaroko Arrasate" liburuan kontatu bezala.

"Kristau doktrinari zintzo-zintzo jarraiki, adineko inork ezin zezakeen sasoi horretatik aurrera egin, urteko aitortza eta jaunartzearekin kunplitu gabe. Aitortzako sakramentuaren penitentziarekin batera, apaizak txartel bat ematen zion eliztarrari eta horrek jaunartzeko orduan bigarren batez trukatu behar zuen. Bazko igandearen ostean, apaiz bat etxe guztietatik igarotzen zen, bigarren txartela eta ezinbesteko limosnatxo jasotzera".



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Jose Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuotako berriemaldea:** Gortzal Lande. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Gloria Agirreurreta



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Asteazkena, 31
- Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 1
- Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Ostirala, 2
- Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 3
- Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Igandea, 4
- Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Astelehena, 5
- Gaeuz eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Astearte, 6
- Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Asteazkena, 7
- Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres

## ARRASATEKO HERRIARI

**A**rrasatear bezala, nire erabateko gutxiespena erakusten dut kale borrokaren erasotzaileen alde tik gure udalbatzako ordezkari batek jasan duen eraso dela eta. Elkartasuna erakutsi nahi diot zinegotziari eta bere familiari, eta baita gure herriko gehiengoaren sentimendua ere. Baina, gobernu zentralaren inbobilismo jarrerari eta oposizio alderdiak (PSOE) horri egiten dion segimenduari ere nire gaitzespena azaldu nahi diet, bake prozesuari izugarrizko zailtasunak jartzen baitizkiote.

Euskal autogobernuari dagozkion erasoei buruz —kontzertu ekonomikoa nahiz beste euskal lege batzuk— eta baita euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeko gaiari eta zigorraren 3/4 bete dutenen askatasunari buruz... zera adierazi nahi dut: bakoitzaren posizio ideologikoa edozein delarik ere, puntu bateragarriak aurkitu behar ditugu gure herriarentzat bakea lortzeko. Espero dezagun gure udalbatza abian dagoen prozesu honen mailan egotea.

Manuel Uribe

## KORRIKA DELA ETA

**B**at eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz” lelopean burutu berri dugun Korrika 11k gure herrian zelako arrakasta izan duen ikusita, Erdu-AEK euskaltegia eta Korrika ezin dira geratu partaide guztiei eskerrak eman gabe, Arrasatek eman duen erantzuna izugarria izan da eta.

Hamaika lagun batuz eta eguraldia zein ordutegia ikusita, “bost axola guri” esanik, lasterketa zaratatsua eta jendetusa izan genuen, bai arratsaldeko Korrika Txikian nola gaueko ordu txikietan heldutako Korrika Hamaikan ere.

Eta hau guztia zergatik?, denok batu garelako euskaren alde eta elkar lotuta denok eskutik, gure herrian euskaren aldeko konpromisoa dugula erakutsi nahi izan dugulako.

Korrika bera da nabarmen ikusi egiten dena eta gure eskerrikeria beroena partaide eta hainbat lagun; batzordeetan zein ekitaldietan txukuntetan zein diru laguntzak ematen, animoak ematen zein ekitaldietan parte hartu duten guztiei; eta egon ezin izan dutenak ere ahaztu gabe, berriz ere esker bero-bero bat Arrasate herriari, “portau zarie eta!”.

“Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz”

*Erdu-AEK Euskaltegia*

## PAULO JORGE FERNANDEZ RODRIGUEZI BURUZ

**A**ntza denez, emaztea eta seme-alabak egoera eskasean utzita alde egin du PJFRek. Esaldi horrek min egin dio Pablari. Baina Pablok ez du Arrasate Pressera idatziko galdetzen ea zergatik egin diozen hori, ez da ausartuko. Bere lagunekin (ni hauen artean) komentatuko du, zer nolako mina egin dion bere familiari buruz idatzi duzuen zurrumurruak.

Gustatuko litzaidake argitzea nondik atera duzuen berri hau eta kontrastatu dagoen ala ez. Esango didazue ez duzuela ziurtzat eman, baina, hala ere, ezin dut ulertu zergatik idatzi duzuen horrelakorik. Eskertuko nizueke horrelako berririk ez idaztea, ez diolako inori laguntzen eta denok dakigu zein zailak diren gauza hauek zuzentzea. Pablo ezagutzen duenak badaki zurrumurru hori ez dela egia. Beretzat ezer garrantzitsurik baldin badago, bere familia da.

Zuzenketa txiki bat eskatu nahi dizuet. Pablok bihotz-bihotzez eskertuko du.

*Juan Manuel Urrutia*

## Erredakzioaren oharra:

*Barkamena eskatu nahi diogu PJFren familiari, uste baitugu Juan Manuel Urrutiak aipatzen duen esaldia ez genuela atera behar, albiste-ari ez diolako ezer eranstien.*

## ONDO PASAU!

**Z**uetariko gehienok bezala, Arkoko langileok ere oporrak izango ditugu datozen egunetan. Hori dela eta, Arrasate Pressen hurrengo alea apirilaren 16an kaleratuko da.

Arrasate Telebistaren opor osteko emisioak, berriz, apirilaren 12an hasiko dira berriro.

Ondo pasau oporrak eta laster arte!

*Arrasate*

*Komunikabideak*

## Maketagile berria

Maketagile berria dugu Arrasate Pressen. Maddi Trutxuelok 27 urte ditu eta Andoaingoa da. Diseinu Grafikoa ikasita etorri zaitugu. Zorionak eta ongi etorri Arrasate Pressera. Txos Azurmendiri ere gure eskerrikeria beroena adierazi nahi



diogu. Zortetik onena lan berriari!

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
**ARRASATE**

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo  
handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

# Baduzu ohiturarik sendagaiak zure kabuz hartzeko?

Dirudienez, larrialdietara joaten diren 10 lagunetik 3, sendagaiak gaizki erabiltzeagatik izaten da.



**Vanesa Segovia**  
(19 urte)  
Ikaslea

Bai, katarro ahulak direnean eta horrelakoetan, bai, baina betiko sendagaiak baino ez.




**Andoni Gomez**  
(18 urte)  
Ikaslea

Ez, nahiago dut ezer hartu gabe sendatu.



**Josefina Etxebarria**  
(72 urte)  
Erretiratua

Ez, sendagileak agindutakoa justuan. Derrigorrez hartu behar izanez gero baino ez du hartzen.



**Antxon Tejada**  
(20 urte)  
Ikaslea

Gauza normalak hartzen ditut, baina kontu handia izan behar da gauza horiek.



**Miren Zabaleta**  
(78 urte)  
Erretiratua

Ez, medikuak esandakoak bakarrik. Interes handirik ez dutenak ere erosten ditugu, baina besteak ez. Nork bere kasa hartzea ez da segurua.




**Visitacion Sogorb**  
(77 urte)  
Erretiratua

Ez, ez zait ondo iruditzen. Nahiago dut medikuarengana joan.



**Jesus Mari Heriz**  
(41 urte)  
Langilea

Bai. Medikuarengana katarro batengatik joatea ez da izaten normala. Beraz, bai. Baina gauza normalak baino ez.



**Pedro Mari Martin**  
(30 urte)  
Langilea

Behar dudanean sendagilearengana joaten naiz. Baina ez naiz asko joateakoa, dena den.

**HIES**  
**EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

## LASER DEPILAZIOA

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoak

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.  
General Alavá 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 FPS. 402/98

*Martxan dagoen*  
**TABERNA**  
**ALOKAGAI**  
*Uribarrin*

Tel.: 943 79 95 24 / 943 79 23 81

## Arrasate

### LANAK

#### SANTA TERESAN

S. Teresan eta Doneztebe Portukon saneamendu lanak.

#### OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

#### KONTZEZINON


Etxeak egiteko lanak.

#### FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak.

#### AGERRE PLAZAN

Plaza berria egiteko lanak hasi dira.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**ASTEAZKENA 31**



**OSTEGUNA 1**



**OSTIRALA 2**

Behelainoa nagusituko da lehen orduetan, baina egunak aurrera egin ahala, eguzkia gailenduko da.

Hego haizearen eraginez, tenperatura altuak izango dira. Hala ere, goiza fresko samarra izango da.

Goiza fresko samarra izango den arren, eguna epeldu egingo da eguzkiarekin.

## Ilargia



**Ilbehera**

Apirilaren 9an, ostirala, ilbehera izango du.

## Mezak

#### Parrokia

**Osteguna**  
18:00 Azken afaria  
**Ostiralean**  
17:00 Jesusen heriotza  
**Larunbatean**  
22:00 Bazko Gaubeila

#### San Frantzisko

**Osteguna**  
18:00 Azken afaria  
**Ostiralean**  
18:00 Jesusen heriotza  
**Larunbatean**  
22:00 Bazko Gaubeila

#### Santa Marina


**Osteguna**  
19:00 Azken afaria  
**Ostiralean**  
18:00 Jesusen heriotza  
**Larunbatean**  
21:30 Bazko Gaubeila

#### La Merced

**Osteguna**  
19:00 Azken afaria  
**Ostiralean**  
18:00 Jesusen heriotza  
**Larunbatean**  
21:30 Bazko Gaubeila

**Urkuluko uraren maila**

**%98,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Hamar enpresa gehiago Euskalanean.
- Ertzaintzak radarrak jarri zituen Mugarri eta San Andresen.
- Arrasateko Udalak ezetza eman zion ELA, LAB, ESK, EILAS, Ezker Sindikalak eta Lankideak sindikatuen 35 orduko lanastearen mozioari.

# 31 asteazkena

## ■ ODOL ATERATZEA

Azken eguna izango da. Odol emaileak arratsaldeko 16:30etatik iluntzeko 20:00ak arte joan ahal izango dira.

20:00etan.

Bazko asteartean Santa Teresa elizan izango dira 19:30etatik aurrera. Urribarrin, berriz, 20:00etan.

Ostiralean, azkenik, San Joan Bautista elizan, goizeko 11:00etatik aurrera.

# 2 ostirala

## ■ ZINEA

*Tango*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

## ■ ZINEA

*Tienes un e-mail*, eman-go dute Alai zineman, larunbatean, igandean, astelehena 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan eta asteartean, 19:00etan eta 21:30etan.

## ■ SAN ISIDROETAKO FUTBITO TXAPELKETA

Muskolako Gazte txokak San Isidroetako II Futbito txapelketa antolatu du. Izenak Erguin, San Andres eta Musakolako gazte txokoe-tan eman daitezke, apirilaren 16a baino lehen. Izan ere, apirilaren 17an bilera egingo da Musakolako Gazte txokoa. Taldeak 12-16 urte bitarteko hamar lagunek osatuko dituzte. Kanporaketak apirilaren 25ean, 30ean eta maiatzaren 8an izango dira eta finala, berriz, Musakolako jaietan, maitzaren 15ean.

## ■ 61EKO SOLDADUGAIK

1961eko soldadugaiek kinto eguna ospatuko dute apirilaren 10ean. Meza San Frantzisko elizan izango dute eta bazkaria, berriz, Amaika-Gazte elkartearen, 14:30etan. Interesatuak Angel Lasagabaster "Kuku", Angel Ayani, Mario Ugarte edo Enrike Del-

gado "Mariscal"ekin jar daitezke harremanetan.

## ■ FUTBOLARI GAZTEEI

Apirilaren 6, 7, 8 eta 9an egingo dira Atxabalpen, 1999-2000 denboraldirako haur mailako talderako jokalarien hautaketa probak. 1986an jaiotako edozein mutilek har dezake parte lau egun horietan, goizeko 10:30etan egingo diren probetan.

## ■ MUSAKOLAKO KIROLDEGIA

Apirilaren 1etik 5era bitartean Musakolako kiroldegia goizez bakarrik izango da zabalik.

## ■ MOSAIKO IKASTAROA

Jabier Mercaderrek "Mosaikoaren diseinua" ikastaroa eskainiko du Leniz Zeramika Eskolan. Ikastaroa apirilaren 12an hasiko da eta ekainaren 24a arte luzatuko da. Izen ematea apirilaren 8an amaituko da, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, Leniz Zeramika Eskolan. Informazio gehiago 943 71 42 86 zenbakian.

# 1 osteguna

## ■ ZINEA

*Tango*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

## ■ TALDE PENITENTZIAK

Bazko astelehenean San Isidro elizan taldeko penitentziak izango dira, 19:30etatik aurrera. Urribarrin, berriz,



## ESKER ONA

1999ko martxoaren 25ean hil zen

## JOSE LUIS GARAY

Bere alargunak eta seme-alabek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak, eta hileta elizkizunetara agertu izana.

**TOLDOS  
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83  
Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari  
aurre egiten  
diogu inork  
baino hobeto**

**USTEAK USTE**

*Hori ez da bidea*

**I**gnacio Gimeno bozeramaile sozialistaren etxeari su eman diote, bera eta bere alderdia suemaitleen ideia politikoekin bat ez datozelako.

Luis Zubiarenari, ostera, edo punteria txarra izan zutelako edo Gimenorena zela uste izan zutelako, biak elkarren ondoan bizi dira eta. Kalte materialak handiak izan ziren, baina, zorionez, inork ez zuen minik izan.

Herri honen geroa bakean eraiki nahi badugu, lehenengo eta behin bakea bera eraiki beharko dugu.

Ezin dugu herririk egin geuk bezala pentsatzen ez dutenen etxeak edo ondasunak errez. Lehenengo eta behin, herria denok garelako eta bigarrenik, ezer egin nahi ez dutenei ezer ez egiteko aitzakia ematea delako.

Kale borrokak ez dio bat ere mesederik egiten Euskal Herriari, ez eta Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zutenei ere.

Indarkeriak indarkeria dakar eta zalantzan jartzen du gure herriaren geroa. Soluzioa bakea da, eta bakebidea.

Joxe Aranzabal

**Kanpoko zorra, betiko?**

\* Juanjo de la Iglesia

**D**iruz aberatsak diren munduko herrialde askotan pobreagoak diren herriei (Hirugarren Munduko herrialdeei) kanpoko zorrak barkatzeko kanpainak jarri dira abian, "2000. urtea, askatasuna mila milioi pertsonarentzat" leloarekin.

Herrialde aberatsen artean holako kanpainak hasi dituztenen artean, ondoko hauek ditugu: Erresuma Batua, Alemania, Austria, Irlanda, Espainia, Kanada, Estatu Batuak, Japonia eta Australia.

Denok dakigu, bestalde, zeintzuk diren zorra barkatu nahi zaien herrialdeak: Latineria, Afrikako herrialde gehienak, Asia-Urruneko Ekialdea, Erdialdeko Ekialdea eta Ekialdeko Europa.

Argi dezagun, baina, zeri deritzaion kanpoko zorra. Honen definizio bat ondoko hau izango litzateke: hego aldeko herrialdeek iparraldeko herriei eta erakundeei zor dieten dirua, haien gobernuek aurreko denbora batean eskatutako

maileguen ondorioz eta ordaindu ezinik dabiltzana.

Mailegu hauek 70-80 hamarkadan egin ziren. Bolar hartan iparraldeko herrialdeetan krisia zelarik, hegoaldeko herriak kredituko merkatu berri bezala aukeratu ziren. Kreditu hauetako asko iparraldeko herrialdeen merkantzien —armak barne— erosketaren baldintzapean eman ziren. 80. hamarkadaren interesen igoerak, oinarritzko gaien merketzearekin batera, zor hauek ezin ordaintzea ekarri zuen.

Gaur egun milaka milioiko zor hauen errudunak bi aldetan daude, bai iparraldeko herrialdeetan (herri aberatsak) eta bai hegoaldekoetan (ekonomikoki pobreak).

**“ Kanpo zorra arazo bihurtu da munduko biztanleen heren baten garapenerako ”**

Iparaldekoak ziur zeudelako kobratuko zituztela, estatuentzat ez baitago kiebra prozedurarik, enpresentzat bezala. Hegoaldekoak beste alde batetik, diru horren beharra zuten, baina denbora hartan, adibidez, diktadura baten menpean zeuden herrialde askotan diru gehiegi eskatu zen. Kasu askotan, gainera, herri horien biztanleriak inongo probetxurik ez ateratzeko, baizik eta izugarritzko erakuntzak altxatzeko edo armatan gastatzeko.

Hegoaldeko herrialdeetako jende pobreenak sufritzen ditu gaur egun zor hauen ondorioak eta hauek ez dira, inondik ere, iraganean beraien gobernuek egindako zorren arduradunak.

Kanpoko zorra munduko biztanleriaren heren baten garapenerako arazo nabarmenarikoa bihurtu da.

Kanpoko zorraren arazoa, iparraldeko eta hegoaldeko herrien arteko irtenbide negoziatu bat behar du, bestela kanpoko zorra ez da inoiz ordainduko.

Eta zer egin dezakegu guk honetan guztian? Oso garrantzitsua da arazoaren kontzientzia hartzea eta gure lagunen artean errealitate hau zabaltzea. Arrasaten laster izango dugu aukera gai honetaz gehiago jakiteko, herrian dauden Gobernu Kanpoko Erakunde guztiek antolatuta, hitzaldi bat egingo da eta.

\* Mugarik Gabeko Ingeniaritza

**Dietetika eta Nutrizioa**  
Lorea Aramburu Dk.

- Medikuntza eta Kirurgian Lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan Diplomatua.
- Bordeleko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan Diplomatua.

**Tratatzen diren osasun arazoak:**

- Kolesterolak
- Azido urikoa
- Loditasuna
- Arteria hipertentsioa
- Diabetesa
- e. a...

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA

Erdiko kale, 22 - 1. • ARRASATE • Tel: 943 79 72 16

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.


Tel.: 943 79 26 99



# Quisiera ser alcalde... Arrasatekoa



**Jose Mari Loiti**  
(60 urte)  
EAJ-PNV-EA



**Xabier Zubizarreta**  
(54 urte)  
EH



**Paco Garcia**  
(46 urte)  
PSE-EE



**Joseba Ugalde**  
(47 urte)  
IU-EB

Nor izango da milurteko honen azken alkatea Arrasaten? Edo datorren mendeko eta milurteko lehen alkatea? Dagoeneko badakigu lau hautagairen izenak. Bosgarrena ezagutzeke dagoela, esan liteke haue-tako bat izango dela.

• Jose Mari Loiti EAJ-PNV-EA koalizioako zerrendaburua izango da. Loitik 60 urte ditu, maisu proiektista ikasi zuen eta azkenengoz Ulma Manutencion enpresan egin zuen lan. Sei urte egin ditu zinegotzi lanetan eta 19 hilabete alkate moduan.

• EHk Xabier Zubizarreta izango du alkategai. Herri Batasunaz gain, Zutik elkar-tea eta beste talde batzuek ere babesa emango diote EHri.

Xabier Zubizarretak 54 urte ditu, Irakasle ikasketak egin zituen eta Fagor Automation kooperatiban ari da lanean gaur egun. Bost urte eta erdi egin ditu zinegotzi moduan eta hamar alkate gisa.

• PSOEk ostegunean aukeratu zuen Paco Garcia. Oraindik Donostian onartu behar da Arrasateko sozialisten propo-

samena, baina ez da aldake-tarik espero. Paco Garcia 46 urte ditu, Ofizialia ikasi zuen eta azkenengoz Fagor Elek-tratresnak kooperatiban egin zuen lan. Gaur egun bere alderdiak liberaturik dago. 12 urte egin ditu zinegotzi lanetan.

• EBk Joseba Ugalde izan-go du buru. Josebak 47 urte ditu, Lanbide Heziketa ikasi

zuen Eskola Politeknikoan eta Fagorren zerbitzu zentraletan egiten du lan. Lau urte egin-gu ditu zinegotzi lanetan.

• PPK oraindik ez du alka-tegairik izendatu, oraindik ere mondragoetar baten bila dabil eta.

EAJ-PNV-EA koalizioak aldatu egin ditzake orain arte-ko emaitzak. Izan ere, kontuan hartzen baditugu azken udal hauteskundeetako emaitzak, koalizio hori nagusituko litza-teke, 1.300 boto ateratzen bai-tizkio EHri. Iazko hauteskun-deetako emaitzak kontuan har-tuz gero, berriz, EAJ-PNV-EAk 537 boto gehiago izan-go lituzke.

Kanpaina, berez, maia-tzaren 28an hasiko da.

## UDAL HAUTESKUNDEAK (1995)

	Botoak	%	Zinegotziak
• EAJ-PNV-EA.....	4.834	37	8
• HB .....	3.535	27	6
• PSE-EE .....	2.530	20	4
• IU-EB .....	1.129	9	2
• PP .....	974	8	1

## Pausoz-pauso, euskara indartuz

Udalerrri Euskaldunen Man-komunitatea osatzen duten 16 herriek eta Euskadiko Kutxak euskararen aldeko hitzarmen bat sinatu zuten Euskadiko Kutxaren egoitzan.

UEMAren eta Euskadiko Kutxaren arteko harremanak euskaraz egingo direla bermatzeaz gain, Euskadiko Kutxak zerbitzu guztiak euskaraz emateko konpromisoa ere hartu du, hau da, bulego-

etako informazio guztia eta sukurtsaletako hormirudiak euskaraz jarriko dira.

Gainera, helburuak lortzeko beharrezko baliabide-ak jarriko dituzte bai bata-k zein besteak. Jarraipen batzorde bat ere jarriko da abian aipatutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko.

Sinatze ekitaldian, Mikel Illarregi UEMAko presiden-tea, Josune Ariztondo Eusko



Hitzarmena hiru urterako sinatu da, hasteko.

Jaurilaritzako Hizkuntza Poli-tikarako zuzendari nagusia, Juan Jose Arrieta Euskadiko Kutxako presidentea eta

Xabier Mendiguren Kontsei-luko idazkari nagusia izan ziren, UEMA osatzen duten herrietako alkateekin batera.

## Adostasunik ez

Astelehenean osoko bilkura izan zen. Politikariek hama-bi puntu landu zituzten. Guztiak onartu ziren, hori bai, tartean eztabaida ugari izanik. Izan ere, 1998ko aurrekontuaren likidazioaren berri emateko orduan, EUDIMARI zor zaion kuotak eztabaida piztu zuen EB, HB eta alkatearen artean. Bestalde, HBk eta EBk, gai batzuen inguruan informazio falta izatea salatu zuten.

Era berean, Babesetze Zerbitzuaren araudi berria ere onartu zen. HBk eta EBk jarri diren mugak ezabatzea eskatu zuten, ondorioz, araudi berriaren kontra bozkatu.

Azkenean, ikusle batzuk pankartekin atera ziren *Papiren* kaleratzea salatuz.

## Papi gose greban

Pedro Mertzan gose greban dago astelehenaz geroztik bere kaleratzea salatzeke. Apirilaren 14an epaiketa du, ordura arte gose greban egotea espero du.

*Papi* gose greban sartu baino lehen, prentsaurrea izan zen, ESK sindikatuak, HBk, EBk eta Senideak-ek deituta. Mila Larrañaga ere hantxe izan zen. Hainbat salaketa egin ziren. Batetik, *Papiren* alde bildutako 2.705 sinadurak udalak gutxietsi izana; bestetik, UGT sindikatuak hartu duen jarrera ere salatu zen eta, Gelman gehiengo duen sindikatuaren ekintzek erantzunik gabe segitzen dutela ere salatu zuten.

# Molotov koktelak Ignacio Gimenoaren etxeari

Larunbat goizeko 01:15ak inguruan, Arrasate pasealekuko Sean kristal hotsa eta eztanda batzuk entzun ziren. Bigarren solairuko auzoa berehala konturatu zen sua piztu zela lehen solairuan eta Ertzaintzari deitu zion.

Antza denez, ezezagun batzuek bost molotov koktel jaurti zituzten Ignacio Gimenoaren etxera. Baita Luis Zubiarenera, seguruenik pentsatuz bozeramaile sozialistaren etxera botatzen zituztela, biak elkarren ondoan bizi dira eta

Kontua da bost molotovetatik bat Gimenoaren etxeko sukaldera sartu zela eta beste bat Luisen egongelara. Kalte handiak eragin zituzten etxe bietan, batez ere Gimenoarenean. Aseguro adituen ustez, bost milioi pezetako kalteak, bai.

Kaltetutako familia biak ez zeuden beren etxeetan. Gimeno eta bere emaztea afaltzen ziren. Luis eta berea, aldiz, Bergaran, semearenean, beren etxea pintatzen zuten bitartean.

Etxera agertu zirenerako suhiltzaileek itzalita zuten sua. Gimenoaren etxeko sukaldera kiskalita zegoen eta kedarra etxe osoan zabaldua. Aseguro adituaren iritziz, hango triskantza ikusita, sukaldetan 600°ko tenperaturak eragin-



Ignacio Gimeno bere etxearen aurrean.

go zituen suak. Luisen etxeko egongelako zorua ere erre-ta zegoen eta han ere kedarra etxe osoan zabaldu zen. Gaitzerdi alfonbrak eta altzariak beste gela batean zeuzkatela. Goizeko 11:30ak inguruan Ignacio eta Luis Ertzaintzara joan ziren, salaketa egitera. Bueltan prentsaerentzako adierazpenak egin zituzten, etsipena adieraziz gertatutakoagatik.

Ignacio Gimenoaren alderdiko buruzagiak igandean agertu ziren Arrasaten, elkartasuna erakustera. Buruzagi sozialistek gogor gaitzetsi zuten atentatua. Manuel Huertasek esan zuenez, "Gizakiak garen aldetik, ekin-tza hau higuigarria da, kargu publikoen kontra ezezik, haien familien aurka ere egiten duelako eta ikuspegi politikotik begiratuta, erabat

faxista da". Rosa Dièzek eta Nicolas Redondok berretsi egin zuten esandakoa.

Astelehenean, berriz, Arrasateko EAK, EAJK, Ezker Batuak, PSE-EEK eta PPK ohar bat kaleratu zuten Gimenoarrei eta Zubiatarrei elkartasuna adieraziz eta atentatua gaitzetsiz. HBk, berriz, ez zuen gaitzetsi eraso eta herri honetan bizi dugun gatazkaren barruan kokatu zuten.

Ignacio Gimeno Inguru-giro batzordeburua da Arrasateko Udalean eta talde sozialistaren bozeramaile. Mondragon Unibertsitateko irakaslea ere bada. Militantzia politikoa luzea du: Alderdi Sozialistan sartu aurretik, Frankoren garaian Alderdi Komunistan ibili zen eta ondoren Euskadiko Ezker-ran.



## ESKER ONAK ARRASATE PRESS-EN

Hildakoen berri emateko edo esker onetarako  
Arrasate Press duzu tokirik aproposena eta merkeena.  
Berri gehiagorako: Tel. 943 71 23 91

astea bi hitzetan

■ UDABERRIKO ELURRA

Ostiralean harri eta zur geratu zen bat baino gehiago elurra ari zuela ikustean. Dagoeneko udaberria etorri dela eta, neguko kontutzat lagatzen dugu askok elurra. Baina hantxe azaldu zitzaigun. Badaezpada, gainera, ez diezaiogun agur esan. Eguraldian adituak direnek agian beste noizbait ere bisitatu gaituela esan dute.

■ GAZTE ABIALDIA

Ostiralean igaro zen Arrasatek Abialdian, Jarrairen 20. urteurrena ospatzeko antolatutako ibilaldia. Arratsaldeko 13:30ak inguruan Eroski parean ongi etorria

egin eta handik kale agerraldian joan ziren herriko plazaraino. 300 bat lagun elkartu ziren. Plazan, Pako Robles preso ohiak. Joxepa Arregik eta jarraikide batek hitz egin ostean, presoen senitartekoei omenaldia egin zitzaion. Era berean, ekitaldia amaitu baino lehen, ETArek anagramadun bandera bat atera eta Espainiako bandera bat erre egin zuten. Ondoren, Eusko Gudariak abestu eta Gazte txera bazkaltzera joan ziren.

■ ISTRIPU LARRIA

Pasa den ostegunean istripua izan zen Garibai kalean. JLG 66 urteko arrasate-

arra Renault 5 zuri batek harrapatu zuen kalea gurtzatzen zebilela. Konortetik gabe eraman zuten eritetxera. Han, gaueko 11:00ak inguruan, hil egin zen.

■ TXATXILI AURRERA

Atzo izan zuten urteroko batzar nagusian, 98. urtearen berri ematez gain, aurtengo egitaraua ere azaldu zen. Elkarte honek hamar urteko ibilbidea egin du dagoeneko. Ekintzak eta zerbitzuak ugaritu egin dira espezializazioaren behararen ondorioz. Iaz, adibidez, Uribarriko Gazte Txokoa eta eskolaz kanpoko ekintzak egin zituzten besteak beste.



Orain zenbait hilabete Jabier Retegi Industria sailburu ohia Arrasateko jeltzaleen zerrendaburua izan zitekeela pentsatu zen. Dena ezerezean geratu zen, ordea, Retegik goi kargu bat onartu zuenean MCCn.

Loitik adierazi zuten oraindik erabaki barik dagoela nortzuk izango diren zerrenda bateratuan bere atzean joango diren hautagaiak. Zenbait iturrik adierazi dute EAko Igor Altuna izango dela bigarren tokian joateko aukeratua. Altunak 32 urte ditu, Alejandro Altunan (JMA) egiten du lan eta Jose Antonio Txatillo, Arrasatek aldi demokratikoan izan zuten lehen alkatearen semea da”

J.L. AZKARATE

El Correo, 1999.3.26



BAKEA ERAIKITZEN

HBk, EAJk, EAK eta EBk deituta, kale agerraldia izan zen plazan “Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza” leloarekin. Euskal alderdi politikoek gobernuaren jarrera salatu zuten horrela.




Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Hobetzeko,  
duzun guztia  
eman behar duzu.



O P E L V E C T R A . A R T E A M U G I M E N D U A N





## ALMEN: NAGUSIAK ALEMANIAN, GAZTETXOAK ARKON

Alemaniara bidean, Milango aireportuan denborapasak egiten zeudela, hara non ikusi zuten Tonino, Tele 5 kateako CQC saioko kazetaria! Dzi-dza batean, komunean aldatu omen zen gizona Almeneko ikasleen ondoan argazkia ateratzeko.

Ostiralean, berriz, Almenen ikasten dauden arrasatearrak komunikabideak hurbi!agotik ikusi nahi eta, guregana etorri ziren. laugarren mailako 27 neska-mutiko izan genituen erredakzioan bueltaka.



Juanma Argazkidea

## AUPA PLAENTXI!!!

Urteroko ohitura bilakatzen ari denari jarraituz, aurten, apirilaren 16an Arrasaten bizi, lan edo ikasten ari diren plazentziatarrak Danok Bat elkarteko mahaiaren bueltan bilduko dira gaueko 21:00etan. Giro makala eta herriko kontuak ziurtatuta daude...

## BIBA GALIZIA!

Arrasateko galiziarrek euren jaioterriko eguna ospatzen zutela eta, denetarik izan zen San Andres auzoan asteburuan zehar. Moreira antolatzaileak Xacobeoa sustatzeko aprobetxatu zuen.

LARRAITZ TROJAOLA, KORRIKAREN ARDURADUNA DEBA GARAIAN

## “Izugarrizko erantzuna izan du Korrikak Deba Garaian”

**Larraitz Trojaola arrasatearrak izan du Korrikaren ardura Deba Garaian.**

**Galtzak bete lan izan duenik ez du ukatzen, baina “lan eginak biharamon ona” duela dio esaera zaharrak.**

**Beharbada horregatik izan du Korrikak hain erantzun ona Deba Garaian.**

**— Nolako erantzuna izan du Korrikak Deba Garaian?**

— Oso ona; izugarria izan da. Antolakuntzari dagokionez ere, jendeak asko lagundu du. Hori guztia azken batean Korrika pasatzerakoan islatu da. Gure kontra jokatu duten faktore mordoak genituen: eguna, ordua, eguraldia... Hala ere, izugarrizko jendetza atera da Korrika egitera.

**— Bitxikeriarik gertatu da?**

— Batzuk bai. Adibidez, Hies-Ekimenak eta Askagintzak kilometro bat erosi zuten, baina Korrika ostegunetik ostiralera bitarteko gauean pasatzen zela uste zuten, eta ez zen lekukoa eramatera inor azaldu. Beste batzuk azken eguneko ekitaldirako txartelean agertu ziren afarira. Aretxabaletan txalapartarekin egin zioten ongi etorria Korrikari, eta oso hunkigarria izan zen. Gatzagan, berriz, Korrika guztietan bidean gelditzen den jendea jasotzen du gizon batek traktorean. Arabako mugaraino joaten da, eta guztiak jaso ondoren, Gatzagara eramaten ditu bueltan.

**— Jendeak distantzia luzean jarraitu dio Korrikari?**

— Batzuek bai. Udana gaintik San Prudentzio pasa arte korrika egin zuenik ere badago. Beste batzuk Aretxabaletatik Landaraino joaten dira urtero, eta aurtien beharbada Legutioraino joango zirela komentatu zidaten.



**— Arrasateko tartean zein taldek eraman du lekukoa?**

— Lehenengo AEK-k hartu zuen, San Prudentzion. Gero, ondorengo taldeek eraman zuten, ordena horretan: Emunek; Txatxilipurdik, Arkok, AEDK eta Ekinek; HBk; Motozaleen elkarteak; Euskalaneak; Hies Ekimenak eta Askagintzak; Gestorek; Baietz Fundazioak; San Frantzisko Xabier ikastolak; Senideak taldeak; Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak; Ttarttalok; Herri eskolak eta institutuak; Trikitixa eskolak eta azkenik Besaidek. Hurrengo taldeak, berriz, kilometroa erosi zuten, baina ez zuten korrika egin: Alecopek, Arrasateko Udalak eta Lanbide Hastapeneko Zentruak. Talde gehienek aurreko urteetan ere eraman izan dute lekukoa.

**— Kilometroak noiz jartzen dira salgai?**

— Ez dago egun jakinik. Guk hiru aste lehenago gutunak bidali genizkien herriko hainbat talde eta erakunderi, guztira berrogeita hamalauri. Beste talde batzuek kilometroa erosi gabe diru laguntza eman dute.

**— Arazorik izaten da kilometroak saltzeko orduan?**

— Arrasaten ez, eta Deba Garaian ere orohar ez da izan inongo arazorik. Aretxabaletan ere salgai zeudenak baino askoz ere gehiago saldu dira. Hori dela eta, ia ezinezkoa izan da talde bakoitzak kilometro osoa egitea.

**— Lan handia eman dizu Deba Garaian Korrikaren arduradun izateak?**

— Bai, batez ere kontuan izanez gero Deba Garaia bederatzi herrik osatzen dutela eta Korrika horietako zazpitaik pasatu dela, Elgeta eta Aramaio kanpoan gelditu baitira. Eskualde handia da, eta batzordeak martxan jarri ondoren lana arinagoa da, baina beti dago zerbait egiteko.

**— Korrikaren inguruan beste hainbat ekitaldi ere antolatu dituzue.**

— Bai. Korrika kulturalaren inguruan hainbat ekitaldi izan ziren. Lehenik, Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta, Benito Lertxundiren kontzertua izan zen. Sagardotegira irteera ere izan zen, otsailean. Baita kiroldegian izandako kontzertua ere, martxoaren 6koa. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin ekitaldi gehiago izan dira. Bestalde, Korrika etorri zen egun berean umeentzako Korrika eta Trikimailu Express ikuskizuna izan ziren.

**— Errepidean kilometroak margotzerakoan izan duzue zailtasunik?**

— Zenbait lekutan kontu handiarekin ibili beharra dago: San Prudentzion, Gatzagan, Deskargan... Hiru bat aste lehenago markatu ditugu kilometroak.

“la ezinezkoa izan da talde bakoitzak kilometro osoa egitea”

# Euskal dantzen ordezkari



Maria Aranbarri, Rita Haywoth-ekin.

Lehenengo pausoak Zeferinorekin egin zituzten, baina gaitu egin zen. Orduan Gregorio Santa Cruz ezagutu zuten, Seccion Femeninaren bitartez. Hauekin Donostiako abesbatza eta dantza txapelketara joan ziren eta handik Madrilera. Baina onena geroxeago iritsi zen. Grezia, Libano, Alejandria, Jerusalem, Egipto... Gloria Agirreurreta eta Maria Aranbarri euskal dantzak egitera joan ziren Mediterraneora. Eurekin batera Maritxu Villar, Gloria Ugarte, Felisa Mendaratx eta Mertxe Ormaetxea mondragoetarrek ere joan ziren, Donostiako beste sei dantzarekin batera.



Jerusalenen, 1950eko abenduaren 24an.

**N**ork pentsatuko luke 1950. urtean Beirut, Jerusalem, Atenas, Cairo edo Faruq erregearen jauregian dantza egitera joateko aukera izango zutela Arrasateko sei gaztek? Hori xe posible egin zuten Gregorio Santa Cruz dantza maisu eibartarraren saioek. "Dantza egiten bagenekien, nik neuk ere balkoitik segitzen nituen nire ahizpa zaharrenaren saioak eta inoiz norbaitek kale egiten zuenean, neuk betetzen nuen haren hutsunea, baina ilarak zaintzen, gorputza zelan ipini eta antzekoak Gregoriok erakutsi zizkigun". Horrela gogoratzen du Maria Aranbarri Gregorio. Maixu honek Gipuzkoako eta Bizkaiko dantzak irakatsi zizkien Arrasateko Seccion Femeninan ari ziren neska gazteei, bai eta inguruko hainbat herritako gazteei ere.



Jerusalengo aireportuan.

## DERRIGORREZKO ZERBITZUA

Seccion Femeninaren zerbitzua derrigorrezko zerbitzua izaten zen Francoren garaian, bai lana egiteko zein atzerri-ra joateko edo udalekuetan aritzeko, beste gauza batzuen artean. Batzuentzat jateko aukera baino ez zen izaten.



Cairon, 1950eko abenduaren 30ean.

Gloria Agirreurretak gogoratzen duenez, "erlijioa, sukaldaritza Obdulirekin, behartsuentzako otartxoak, puntua, jostea... egunero zerbait geneukan, zortzietatik hamarretara. Ez zegoen besterik. Sindikatura joan behar zinen ezer egin nahi bazenuen". Eta dantza ere egiten zen. Arrasaten dantza egiteko ohitura zegoen. Jai egunetan ere bandak eta txistulariak plazan jotzen zutenean, sekulako jendetza elkartzen zen.

"Bandak bi pieza jotzen zituen eta gero danbolinak beste bi. Txandaka aritzen ziren bina pieza jotzen. Jendeak bi pieza dantza egin ostean, pasieran ibiltzen zen erdiko kaletik Zaldibarrerantz eta plazara, beste bi pieza dantzatzeko. Neurtuta zegoen. Guk, ordea, ez genuen pasierarik egiten, dantzaldi osoan zehar aritzen ginen plazan eta borobila ere egiten ziguten".

Maria, Gloria biak, Mertxe, Felisa eta Maritxu, euskaraz hitz egitea debekatua zegoen garai hartan, euskal dantzen erakustaldietan aritu ziren. Zeferinok irakatsi zien dantza egiten. Baina Seccion Femeninak udaberrirori egiten zuten dantza eta koru jaialdi-tarako taldea prestatu nahian,

Gregorio Santa Cruz ekarri zuten. Astean birritan ziren saioak merkatuko plazan. Txangarrangoa, makil dantzak, zinta dantza, banako, binako eta zortzikoa.... Donostian izan zirenek Madrilera bidaiatzeko aukera izan zuten. "1949-50 urtea izango zen eta Cuzcoko lurrikarak eragindako kalteei aurre egiteko jaialdia antolatu zen. Gu Donostiako dantza taldearekin batera joan ginen. Bixente Etxebarria txistularia eta Jaime Torres danbolina jotzen joan ziren gurekin. Gure aktuzioarekin oso gustura gelditu ziren eta Mediterraneora eta Ekialde Hurbilera antolatu zuten bidaiara batera eraman gintuzten. Mondragoeko sei dantzari eta Donostiako beste sei".

## BIDAIA AHATZETZINA

"Donostian trenea hartu Bartzelonaraino eta han Vicente Puchol itsasontzia hartu genuen. Bartzelonako Musika jauregian dantzatu genuen.

"Greziara abenduaren 8an iritsi ginen. Elena antzokian izan ginen.



Beiruten, Jerusalem bidara, 1950eko abenduaren 24an.

# ak Francoren garaian

“Errege-erreginen jauregira gonbidatu gintuzten, baina Sofia erreginaren osaba gaixorik zegoela eta, turismo egin genuen. Hilerria ikustera eraman gintuzten.

“Handik Turkiara itsasontzian. Lau bat egun egin genituen. *El Cuerno de Oro* ikusi genuen. Huraxe izan zen ikusi genuen ederrena. Sultanaren etxera gonbidatu gintuzten, baina ez ginen joan, badaezpada, hango dantzak zirela eta!

“Gero Libanora. Han Kiros ikusi genuen “ardoaren eta eguzkiaren hiria”. Euskaldunok beti abesten joaten ginen. Damaskorako bidean zegoen kontzentrazio zelai batetik pasatu behar ginela, ordea, debekatu egin ziguten abestea.

“Beiruten hegazkina hartu eta Jerusalemenera. 48 plazako hegazkina zen, guretzat bakarrik! Gurutzebidea egin genuen, Lazaroren hilobia ikusi...

“Abenduaren 24an Belenen dantzaldia izan genuen. Hara ezkondata zegoen andra eibartar batekin egin genuen topo. Gure aktuaziora gonbidatu genuen eta sarrerarik ez

## BITXIKERIAK

- Fideoak, bakailaoa eta babarrun zuriak jan genituen itsasontzian.

- Dena itsasontzian egin genuen, Cairon izan ezik, han zortzi egun egin genituen eta. Jerusalemen mojekin izan ginen. Gabon gauean barazkiak eta bildotsa jan genituen.

- Egiptoko piramideak barrutik ikusi genituen: zenbat urre zegoen han! 280 eskailera zituen eta katamarran ere joan behar ginen.

- *Kuku-kuku* abestia zenbat aldiz agindu ziguten abestea!

- Bi piastra kostatzen zen gameluan ibiltzea.

- Rita Hayworth aktore estatubatuarrekin ere egin genuen topo eta argazkia atera ziguten.

- *Salve Regina* kantatzean, itsasontzia mugitu egin zela ere gogoratzen dugu.

zuenek, gurekin sartu genuen, agertokian ipini genuen aulki batean ikus zezan. Aitortu zigunez, egun hartan bertan hil balitz ere, pozik hilgo zen, Euskal Herrian zegoela pentsatuko zukeen eta!

“Belenen izan gineneko diploma bana ekarri genuen. Oso gauza bitxia zen. Gure lehen abizenaren orde bigarrena, amarena, ipini ziguten.

“Beirutetik bueltan Alejandriara joateko itsasontzia hartu genuen berriz ere eta handik Cairora joan ginen.

“Afaria izan genuen Faruk erregearen jauregian eta uni-bertsitatean ere egin genuen dantza. Futbol zelaian izan zen, denak zoratu egin ziren. Toreroak bezala erabili gintuzten eta hurrengo egunean bakoitzari kaxa bana txokolatina banatu ziguten, barkamena eskatzen”.

Gloriak gogoratzen duenez, “benetan bidaia ederra izan zen. Zumarragara iritsi ginenean, Union Cerrajeraren bagoiak ikustean, negarrez hasi ginen, hunkituta. Orduan konturatu ginen non eta norekin izan ginen. Arrasatera iritsi ginenean, Cerrajerako lankideak leihoetatik begira zeuden. Oso polita izan zen. Gure aita eta ama laugarren solairuan bizi ginen, eta ‘Glori sano zatoz?’ Geroago bidaiako lagun eskutitzak iritsi ziren eta gure aitak, ‘neska hau zertan ibili da?’ galdetzen zuen”.

Bidaiak hilabete eta erdi iraun zuen. San Sebastian bezperan itzuli ziren etxera, ametsetako bidaia eginda. Francoren asmoz baliatuz, euskal dantzak erakutsi zituzten munduan zehar. ■

Marijo Deogracias



Estanbulen, 1950eko abenduaren 14an.



Bartzelonako portuan.



Partenonean, 1950eko abenduaren 18an.



G. Agirreurreta eta M. Aranbarri, Beiruten.





## Amaitu da amesgaiztoa

Arrasateko senior mailako eskubaloi taldeak agur esan zion igandean denboraldiari. Eta ohikoa duen legez galduz gainera. Beraz amesgaiztoa amaitu dela esan dezakete azkenean. Joan den igandean Aloña Mendiren aurka aritu ziren eta ikuskizun tamalgarrria eman zuten mondragoe-tarrek. Bi jokalarik kanporatu zituen epaileak: Mikel Loiti eta Jon Iraola. Baina ez zen hor-txe bukatu epailearen lana. Bernardo Balerdik ezintasunaren aurrean jokalekura egin

zuen jauzi eta epailearen aurka jo zuen. Azkenean, entrenatzailea ere kanporatu egin zuen epaileak.

Markagailuari dagokionez, 18 eta 14 amaitu zen, nahiz eta irabazteko aukerak ere izan zituzten. Lehen zatian txantxi-kuarrak izan ziren nagusi, hala ere, bigarren zatian mondragoe-tarrek erreakzio txiki bat izan zuten eta bigarren zatiko 15. minutuan Aloñamendi gol bakar bateko aldeaz zen aurretik. Azken minutuetan partida berotu egin zen eta hau mondrago-

etren kalterako izan zen. Azkenean Aloñamendi nagusi.

Dena dela, mondragoeta-rrentzat amaitu da amesgaiztoa. Ez dute partida bat bera ere irabazi eta puntu bat bera ere ez dute lortu.

Euskal ligan jokatzeari lagako diote eta datorren denboraldian eskualdeko lehen mailan lehiatu beharko dira.

Benetan urte kaxkarra egin dute Beñardo Balerdiren mutilek. Aurtengoa ahaztu eta hurrengo denboraldia prestatzen hasi beharko dira.

## IV Futbito Txapelketa

AEDk antolatzen duen nesken futbito txapelketa abian da jadanik. Aurtengoa laugarrena izango da eta aurreko urte-etan bezala, Ferixalekuan jokatuko dira norgehiagokak. Izen ematea zabalik dago eta apirilaren 16a izango da azken eguna. Horretarako AEDra jo daiteke edo 943 77 12 28 zenbakira deitu.

Taldeak gutxienez bost lagunekoak izan behar dira, baina antolatzaileek adierazi digutenez, norbaitek jokatu nahi izango balu eta talderik aurkituko ez balu, "izena berdin-berdin emateko, gero ere taldeak osatu ahal izango dira eta".

Partidak larunbat goizetan jokatuko dira eta izena ematen duten talde kopuruaren arabera, arratsaldez ere jokatuko dira. Finala, berriz, San Juanetan jokatuko da.

## TXIRRINDULARITZA Del Rio laugarren



Afizionatu mailako Born Jay taldeko txirrindulariek bi lasterketa izan zituzten asteburuan. Larunbatean Laukizen izan ziren eta lasterketa bikaina bukatu zuten. Garaipena Banaka taldeko Josu Sillonizek eskuratu zuen, baina Jon del Rio laugarren izan zen. Denboraldia bikain hasi du Born Jay taldekoak. Hurrengo lasterketa igande honetan izango dute, Zornotzan.

Gazte mailako Fagor taldekoak Antzuolan izan ziren joan den igandean. Uzarragako XXV proba zegoen jokoan eta azkenean Saurnier Duval taldeko Ivan Rodrigezek esku-

ratu zuen lasterketa. Fagorrekoek ez zuten zorterik izan. Izan ere, hasiera hasieratik erritmo bizia jarri zuten tropelean eta asko izan ziren lasterketa utzi behar izan zutenak. Atera ziren 150 txirrindularietatik 60 baino ez ziren iritsi helmugara. Hala ere, Txema Galan eta Gorka Almarazek lehen tokietan sartzea lortu zuten. Hurrengo proba Deban izango dute, apirilaren 11n.

## SASKIBALOIA Geroz eta okerrago



Saskibaloi taldeak hirugarren porrota segidan lortu zuen joan den

asteburuan jokatutako derbian. Ezin izan zuen Bolsos Bergararen aurka, Bergaran. Kenci-Arrasate taldeak geroz eta aukera gutxiago ditu igotzeko jokatuko dutenen artean sartzeko. Bergararen kontrako derbian atzetik ibili zen Kenci-Arrasate.

Bigarren zatiko hasieran mondragoetarren jokoak hobera egin zuen eta horren ondorioz 44-45 aurreratzea ere lortu zuten. Hala ere, bergarrek azken txanpan baloia hobeki mugitu zuten eta epailean erabakiak ere bergararen aldekoak izan ziren. Bukarera, Bolsos Bergara 74-Kenci Arrasate 62.

Hurrengo norgehiagoka apirilaren 10ean izango da, Errioxako Santo Domingo taldearen aurka.

## FUTBOLA Azken aurrekoak



Futbolearen emaitza onik lortu mondragoe-tarrek.

Preferentekoek bikain hasi zuten norgehiagoka eta lehen zatiko 10. minutuan Garinek Beti Gazteren atea zulatzea lortu zuen. Lehen zatia 0 eta 1eko emaitzarekin amaitu zen. Bigarren zatia, hala ere, guztiz bestelakoa izan zen. Bigarren mailako 6. minutuan Beti Gazte taldeko Xabier egotzi zuen epaileak. Hala ere, Beti Gazte hazi egin zen eta Irazokiren hiru goli esker partidari buelta ematea lortu zuen. Gureak azken aurrekoak dira eta apirilaren 10ean Beti Ona taldearen aurka arituko dira.





# Baloia ala burua?



**L**ehiatua izan zen AC Surkos eta Pepelus taldeen arteko norgehiagoka. Atezainari begiratzea besterik ez dago. Baloia gelditzera joan eta aurrelariaren burua aurkitu zuen parean. Dena dela, balio izan zion gola geldiarazteko. Jokalariak buruan minik hartu ote zuen, ez dakigu ordea! Partida seina amaitu zen.

## Partidarik ez

Aste Santua dela eta, asteburu honetan ez da partidarik jokatu. Aurreko astean aurreratu genizuen bezala, jokalariei jai ematea erabaki dute antolatzaileek. Beraz, hurrengo neurketak, apirilaren 17an eta 18an jokatu dira.

## Hirugarren aldiko emaitzak

A taldean aipatzekoa da Txantxiku kirolak taldeak lehen tokia berreskuratduela. Izan ere, hirugarren jardunaldian 10 eta 3 irabazi zion Leya taldeari.

B taldean Aldibik lider segitzen du. Honek ere garai-pena eskuratu zuen joan den asteburuan, KKJauriren aurka. 8 eta 6 irabazi zuten eta Potroek baino puntu bat gehiago dute jadanik.

D taldean bestalde, sei gol sartu izana dugu aipagarri. Zortzi taldeetatik bostek lortu

zizuten sei gol sartzea aurkariei. Talde honetan AC Surkosek segitzen du lider, Lontxorekin berdinduta.

Azkenik, eta E taldeari dagokionez, Ke Oxtias joan den astean gelditu zen txapelketatik kanpo eta Totem taldearentzat izan da aldeko puntua, partida jokatu barik.

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txantxiku Kirol.	3	2	1	0	20	9	5
Branka Taberna	3	2	1	0	18	13	5
Komando Al.	3	1	2	0	13	9	4
Irati STS	3	1	1	1	13	11	3
Jotakabau	3	0	3	0	8	8	3
Aita Menni 2010	2	0	2	1	10	16	2
Dribling	3	1	0	2	8	13	2
Leya	3	0	0	3	10	21	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	3	3	0	0	22	9	6
Potroak	3	2	1	0	16	8	5
Garaje Oskar	3	2	0	1	11	15	4
You Know	3	1	0	2	16	13	2
DKB	3	0	2	1	11	13	2
Koka Juniors	3	1	0	2	10	15	2
KKJauri	3	1	0	2	13	24	2
Fragel Gol	3	0	1	2	9	11	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	3	2	1	0	0	19	5
Lontxo Taberna	3	2	1	0	20	13	5
Diego Antonio	3	1	1	1	16	15	3
Pepelus	3	1	1	1	13	15	3
Xhassus Ugarte	3	1	0	2	13	14	2
AT Celaya	3	1	0	2	14	19	2
Aurrera Bolie	3	0	2	1	13	16	2
Kamasutra	3	1	0	2	12	16	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mec.	3	3	0	0	28	8	6
Orlando Pirat.	3	2	0	1	22	13	4
EPEH	3	2	0	1	16	14	4
Sokoakoak	3	1	1	1	9	9	3
Insert Coin	3	1	1	1	8	11	3
Totem	3	1	1	1	8	16	2
Saukelu Scream	3	0	1	2	5	16	1
Ke Oxtias	3	0	0	3	4	13	0

## Emaitzak

### A taldea

Txantxiku Kirolak 10 - Leya 3  
Irati STS 10 - A. Menni 2010 4  
Dribling 3 - Branka taberna 6  
Jotakabau 4 - Komando Alp.. 4

### B taldea

You Know 3 - Koka Juniors 4  
Petroak 5 - DKB 5  
KKJauri 6 - Aldibi 8  
Garaje Oscar 5 - Fraguol Gol 4

### D taldea

AC Surkos 6 - Pepelus 6  
Lontxo Tab. 6 - Diego Ant. 4  
Xhassus Ugarte 6 - Kamasut. 4  
Aurrera Bolie 3 - AT Celaya 6

### E taldea

Orlando Pirat. 4 - Sokoakoak 5  
Naranja Mec. 6 - Insert Coin 2  
EPEH 6 - Saukelu Scream 2  
Totem 1 - Ke Oxtias 0



**M**aalako futbol zelaia 1922. urteko San Joan egunean inauguratu zen. Egun horretan, Mondrak Erandioren

aurka jokatu zuen partida eta ez ohiko jokalaririk ilustre erdi mondragoetar bat izan zuen taldea osatzeko: Patricio Arabalaza olinpiko irundarra. Patriciok gurasoak Zigorrolakoak zituen.

Argazkian zutik ezkerretik eskuinera: Bixente Arregi "Sagardotegi", Agustin Abarrategi "Botines", Joxe Mondragon "Marruko", Nicasio Gonzalez, Ramon Barrena, Zabarte eta Felix Herrera.

Belauniko, berriz, Luis Ibañez, Luis Ubago, Luis Zarraoa eta Modesto Oianguren "Txantxote" daude.

-----  
*Argazkia eta berriematea:*  
Agustin Azkoaga



5 urteko bermarekin

Ordutako piezako 24 ordu

Laguntza errepidean 24 ordu

© 900 30 80 80

**MENDIOLA**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Erakusketa eta Salmenta: Tel.: 943 79 00 11  
Mekanika eta karrozeria: Tel.: 943 79 75 64



# MÉGANE BERRIA

JAKIZU,  
INORK BAINO LEHEN,  
ZURE BURUA ZAINZEKO  
MODURIK ONENA



## MECA TAILERRAK

Tel. berria: 943 71 24 72 • ARRASATE